Ezinbestekoa da jakitea beraz, hitz bakoitzak duen amaierako A hori itsasia den ala ez, hitzak berez duen letra den ala ez. Edota beste aldetik, artikuloren parte den. Deklinatzeko era ere ezberdina izanen da:

183.taula: -a itsasia

GAIZKI	ONDO
famili bat	familia bat
polizi asko	polizia asko.
anai txikia	anaia txikia

2.3.3.4. Kasu gramatikal eta leku-denborazko kasuen ezaugarriak

Multzo gramatikalaren barnean kokaturik dauden kasuek, -k (*liburuK, etxeK...*) atzizkia eramaten dute kasu askotan. Hori da, kasu hauek bereizgarria duten partikula. Bestetik, leku-denborazko kasuei dagozkien atzizkia -ta (*etxeTAKo, etxeTAn, etxeTAtik...*) izango da, izen bat deklinatzeko unean atzizkiaren zatiren batetan kokatu

beharko delarik partikula. Beraz, atzizki horiek ondo erabiliz gero, mugagabearen erabilera zuzena izango da.

Deklinazio kasu bat erabiltzeko unean, hots, hitz bat deklinatzeko momentuan, artikulurik gabeko estruktura bat sortuko da, bere orde, atzizki bat joango baita (*etxeETAN, jolasEKIN, parkeTAKO...*) eta ez (*en LOS parques, en LAS casas, con LOS juegos...*).

Atzizki bat ala bestea erabiliko da, deklinazioak eskatzen duen kasuaren arabera. Atzizkiek objektu ala pertsonak daraman numero gramatikalaren inguruko informazioa

2.3.4. Zein kasutan erabiliko dugu mugagabea?

Honako informazioa *Euskal Gramatika Osoa* liburutik hartu da (308-311)

- *Izen bereziekin*: Izen arruntek aurretik aipaturiko (singular, plural eta mugagabea) edozein kasu jaso dezakete. Izen propioak aldiz, mugagabearen marka har dezakete soilik. Ez dute artikularen beharrik, berez, objektu, pertsona, lurralde zehatz bati egiten baitiote erreferentzia. Horrela da bai, izen arruntek artikularen beharra dute objektu konkretuei erreferentzia egin nahi badiote.

(37) Adibidea: (gramatika osoa 308.or)

a) *MikeLEKIN geratu naiz.*

b) *NekaneRENA dela uste dut.*

- *Izenordain eta erakusleekin*: Izenordainak, oro har, mugagabearen deklinatzen dira beti, baita pertsona-izenordainak ere.

(38) Adibidea: *niK, niRI, niREKIN...*

Erakusleak ere mugagabearen deklinatzen dira beti.

(39) Adibidea: *honi, honEN, harTAKO...*

Elkar izenordaina, mugagabearen deklinatzen da beti.

(40) Adibidea: *elkarrl, elkarrEN, elkaRREKIN...*

- *Galdetzaile eta eratorriekin: “Zer”, “zein”, “zenbat”*. Galdetzaile bat agertzen den bakoitzean, forma mugagabea ipintzea ezinbestekoa da. Galdetzaileak beste hitz batez osatu daitezke, eta kasu hauetan, ondoren datozen hitzak dira deklinatu behar direnak, beti ere, mugagabeen:

(41) Adibidez: ZEIN orduTAN iritsiko da trena? ZENBAT jende dago festan?

- *Zenbatzaile zehaztuekin: “hiru”, “lau”, “hogei”*. Zenbakiak agertzen direnean, bi forma har ditzake deklinabideak:

(42) Adibidea: *hiru etxeETAN egon dira*. Plurala.

Hiru etxeTAN egon dira. Mugagabea.

Lehenengo kasuari dagokionez, bisitatu dituzten etxeak ezagunak izan dira, hau da, haien lagunak, senideen etxeak izan dira. Bigarren kasuan aldiz, ezagunak ez diren hiru etxe bisitatu dituzte, agian, hiriko hiru biztanleen etxeak.

- *Zenbatzaile zehaztugabeekin: “asko”, “gutxi”, “gehiago”, “hainbat”, “zenbait”, “edozein”, “pila bat”, “makina bat”*. Zenbatzaile zehaztugabeek ez daramate, ez singular ezta plural formak. Ondorioz, osatutako sintagma hori mugagabeen agertzen da.

(43) Adibidea: a) *Leku ASKOTAN egon gara*.

b) *Jende GUTXIREKIN topatu naiz*.

c) *EDOZEIN herriTAN ikus daiteke futbol lehiaketak*.

- *Zenbait deklinabide-kasuekin: “-rik”, “-z”, “-tzat”*. Euskaran partitiboak (-RIK) eta prolatiboak (-TZAT) mugagabea onartzen dute soilik.

(44) Adibidea: a) *Ez daukat batere gogorIK*.

b) *TontoTZAT hartu naute*.


Zerez kasua (instrumentala) forma mugatuan onartzen baditu ere, normalean mugagabeen joan ohi da.

(45) Adibidea: *Nola etorri zara, trenEZ ala autobusEZ?*

- *Zenbait aditz berezi: bihurtu, izendatu, joan, hartu, bidali, egin, aukeratu:* Aditz berezi hauek mugagabea eskatzen du.

3. METODOLOGIA

3.1. Inguru soziolinguistikoa eta gure eskola.



1.irudia: Nafarroako mapa: euskararen erabilera, zonaldeetan zatiturik.

Sarreran aipatu bezala, ikerketa lana Atarrabian burutu da, Iruñerriko herritxo batetan. Zonalde mixtoari dagokion herrialdea izanik (marrazkian ikus daiteke kolore morez dagoen zatia), L1aren eragina garbia izango da hizkuntzaren erabileran, euskararen kaltetan, alegia. Euskararen ohiko erabilera txikiagoa izanen da eta L1 (gaztelania)

berriz, maiztasun handiagoaz erabiliko da.

3.2. Ikastetxea

Paz de Ziganda ikastetxean burutu da azterlana. Ikastetxeak 1100 ikasletik gora ditu. Ikastolak euskararekin duen konpromezu irmoa, euskararen inguruan sortutako proiektuen bitartez agertzen du. *Euskaraz bizi* programa edota *hizkuntza programak* bederen, euskarazko gaitasun linguistikoak eskuratzera bideraturik daude. Beraz, zentroak euskararen erabileran erakusten duen inplikazioa handia da, eta horregatik, euskararen egitura linguistikoak ahalik eta gehien lantzen saiatzen da, besteak beste, gramatikaren alorrean, numero gramatikalen erabilerak, eta mugagabearen lanketa.

Euskarak toki handia dauka ikasleen egunerokotasunean. Denetara, 1200 minutu inguru pasatzen dute buru belarri euskara lantzen, ingelesa eta gaztelaniari eskaintzen zaizken ikasgaiak alde batera utzita. Ikaskideen artean euskaraz mintzatzen dira hein handi batetan. Beraz, euskararen erabilera zuzen bat edukitzeko maila izango dute ikasleek.

Lehen Hezkuntzako ikasleetan zentratuko gara jada. Sei urterekin hasiko dute berez, haien ikaskuntza etapa, Haur Hezkuntzako etapa amaitzerakoan. Mundu berri bat hasiko da beraientzat, baita euskararen alorrean ere.

3.3. Gure azterlana

Gure helburua, euskarak berea duen ezaugarri baten azterketa egitea da, hots, mugagabearen erabilera nolakoa den zikloz ziklo. Lehenengo zikloko (6-8 urte bitarte), bigarren zikloko (8-10 urte bitarte) eta hirugarren zikloko (10-12 urte bitarte) mailetan aztertuko dugu. Urtez urte, euskararen jakintza maila gero eta handiagoa izatearen ondorioz, hizkuntza eta gure kasuan, mugagabea modu egokiago batean erabiliko dutelaren hipotesia baieztatzeko aukera izango dugu hurrengo orrialdeetan.

Lanaren lehenengo atalean, datu jasoketa bat egin dela aipatu dugu. Beraz, mugagabeari buruzko datuak jasotzeko erabili dugun tresna galdetegi bat pasa da. Galdetegiak hamalau galdera izan ditu, horietan guztietan, mugagabearen erabileran zentratuko direnak. Esaldi bat erderaz esan eta ikasleen lana esaldia ahalik eta modu egokienean euskaratzea izango da. Beraz, esan daiteke ikerketa kualitatibo baten aurrean gaudela. *“aquella que produce datos descriptivos: las propias palabras de las personas, habladas o escritas, y la conducta observable”*. (Taylor y Bogdam 1986: 20).

Beraz, erabiliko dugun metodoa inkestarena da. Galdetegiak eratu ditugu (ikusi eranskinak) ziklo bakoitzeko hamar ikasleri pasatzeko asmoz. Beraz, gure parte hartzea ikerlari gisa ezinbestekoa izango da. Izan ere, landa lana erabiliz, ikasle bakoitzari mugagabeak sortarazten dizkion portaerak behatuko ditugu, eta ondoren, emaitzak aztertu ondoren, zer nolako erabilera egiten den adierazteko aukera izango dugu.

Mugagabearen arauak ondo erabiltzen dituzten aztertzeiko teknikarik aproposenatarikoa izango da galdetegia. Izan ere, Hopkinsek (1989, 95) tresna honen alderdi positiboak nabarmendu zituen, besteak beste, burutzeko erraza, ondorioak ateratzeko egokia eta talde edota indibiduen arteko erlazioak egiteko aukera ematen duela esaten zuenean.

Tresna aproposa da edozein ikerlarirentzat, ikertu nahi den gaia edozein izanda ere: *“una de las principales utilidades de este instrumento es que no se necesitan*

personas preparadas para la recogida de información. Y es más, a través de esta técnica la recogida de información se hace de un modo rápido” (Buendía 1997). Mugagabearen erabileraren inguruko galderak prestatu ditugula, ikaslearen parean jarri eta aurrera egiteko aukera izango dugu prozesuan, mugagabearen erabileraren inguruko datuak biltzen.

Inkestan landu ditugun mugagabearen kasuak ergatiboa, absolutiboa, adlatiboa, soziatiboa, destinatiboa eta inesiboa izan dira. Hain zuzen ere, kasu horiek dira guztietan garbienak eta gehien erabiliak, eta askotan akats gehien sortarazten dituztenak. Beraz, horiek hautatu eta beste guztiak alde batera uztea erabaki dugu. Fox-ek zioen bezala (1980), *erantzun modeloen prestaketa eta hautaketa galdetegien zatirik garrantzitsuena da*. Horregatik, garbi dugu zein izango diren aztertu nahi izango ditugun kasuak.

Kasu horiek izan daitezke egunerokotasunean gehien erabili ohi direnak, baina bereziki, ergatiboaren kasua. Kasu hau gero gutxiago erabiltzen da, eta gerta liteke, horren ondorioz, azkenean, ergatiboaren erabilera ezkutuan geratzea.

Ergatiboa, mugagabearekin batera euskarak berezkoa duen ezaugarria da. Berezkoa diot, haren erabilera ezinbestekoa delako hainbat kasutan, baina baita hizkuntza gutxik duten altxorra delako. Besteak beste, Australian, Georgian, Alaskan erabiltzen da ere ergatiboa. (Gartzia. Urtea (http://www.euskonews.com/0319zkb/elkar_eu.html))

Inkestaren bidez, deklinabidea lantzeko unean eta mugagabea erabiltzeko unean zer nolako akatsak sortzen diren aztertu dugu. Txillardegi subrayó años atrás que detrás de la declinación tenía gran importancia el buen uso del indefinido, ya que era necesario en el proceso de la unificación de las normas del euskara. (Zabala, J.L, 2004. *Euskararen zerbitzari*) Horregatik, goazen ba, Lehen Hezkuntzako ikasleek mugagabeari ematen doten erabilera aztertzeraz.

Esaldi batzuen artean, eta ikasleak gure asmoetaz jabe ez daitezten, mugagabearekin zerikusirik ez duten esaldi batzuk ere txertatu ditugu. Gure helburua, mugagabearen nolako erabilera egiten duten aztertzea da bai, baina betiere, kontu

handiz, ikaslea gure nahia zein den kontura ez dadin. Akats horretan eroriko bagina, erantzunak jada ez lirateke baliozkoak izango, eta ziurrenik, errealitatetik kanpo geratuko liratezkeen erantzunak jasoko genituzke.

3.3.1. Inkestaren aldagaiak:

Inkesta hainbat aldagaik baldintzatuko dute. Horien eginbeharra gure lana eta erantzunak ahalik eta gehien mugatzea izango da, ondoren, ondorio ahalik eta zehatzenak eskuratzeko aukera emango digutelarik.

Ziklo bakoitzean hamar ikasle aukeratu dira, ikasle horiek guztiak Ikastola berean, Paz de Zigandan matrikulatutakoak. Aukeratuko dugun ikaskideen lagina ez da ausaz egin. Izan ere, eta ikasle guztien hizkuntza ezaugarriak ahalik eta antzekoenak izan daitezzen, soilik, L1 gaztelania duten ikasle horiek hautatuko ditugu, hau da, haien gurasoak erdaldunak dituzten ikasleak edota euskaldun berriak direnak. Gutxi izango dira gurasoak euskaldun zaharrak dituzten ikasleak, eta ondorioz, (L2) hizkuntza euskara duten ikasle horiek soilik hartuko dute parte. Horrek eragin garbiak izango ditu, ziurrenik gure ikerketan, egunerokotasunean euskara bigarren hizkuntza gisa geratzen baita.

Hautaketa horrekin zera izango da lortuko duguna: pasatu zaien inkestaren emaitzak zehatzagoak izatea. Izan ere, ez da batere objetiboa dialekto jakin bat (adibidez, Baztán aldean hitzegiten dena) hitzegiten duen ikasle baten eta guraso erdaldunak dituen beste ikasle horren artean emaitzak konparatzea. Gainera, 1.4.3. azpi-atalean aipatu bezala, dialekto bakoitzak mugagabea erabiltzeko modua ezberdina izango da. Goazen ba, hizkuntzaren alorrari begira, ahalik eta ezaugarri antzekoenak dituzten ikasleak aukeratzera.

Inkesta Euskara Batuan burutu da, hasierako atalean azpimarratu bezala, legeak hoberen finkatuen dituen euskara baita. Ondorioz, euskalkien erabilera alde batera utzi dugu, ezberdintasun dialektalak anitzak izan baitaitezke, *“Euskarak zenbait puntutan handik honako aldeak, desberdinak diren aldaerak dituela begien bistakoa da, bideetan zehar dabilen edozeinentzat. Eta beraz, hizkuntzak ez du zertan egonkorra*

izan behar.” (Eusko Jaurlaritza txostena- euskera eta dialektoak) Horrek erakusten du, ondorioak izan ditzakeela ere gure aztergai.

Banan banan egin zaie galdetegia, gelatxo batean, erantzunek beste ikaskideen eragina izan ez dezaten. Emaizak independenteak izango dira beraz.

Inkesta ahoz egin da, beraz, datuak zuzenean jasotzeko aukera izango dugu. Gaur egun, ahozkotasanari ematen zaion garrantzia oso txikia da, apenas eskaintzen zaion arretarik kontu, itxura guztien arabera ezinbesteko horri (egaña artikuloa). Gazteek bereziki, zailtasun handiak dituzte ahoz ideiak transmititzeko, adierazi nahi duten hori modu zuzen batez adierazteko. Ikerlariak aho batez aitortzen dute ahozkotasanak (ahoz modu eraginkorrean komunikatzeko gaitasunak) gero eta garrantzi handiagoa duela, eta ez jardun esparru jakin batzuetan soilik, jardun esparru guztietan baizik.(Andoni egaña eta Joxerra Garcia) Ondorioz, interesgarria izango da lortuko ditugun erantzunak alor honetan ere. Hitzeginez normaltasun handiagor erantzungo dutelakoan nago, eta modu naturalago batez agertuko dituztela akatsak ere.

Bestetik, idatziz pasako baliegu galdetegia, denbora gehiago beharko lukete esaldi bakoitza itzultzeko eta pentsatzeko. Hein handi batetan hori ez litzateke guztiz objetiboa izango, erantzun espontaneo bat bilatzen baitugu, naturala eta momentukoa den esaldi bat.

Kasu bakoitza aztertzerakoan, izenari jarriko diogu arreta. Esaldi guztietan agertuko diren izen motak arruntak izango dira, horietan aztertuko baitugu mugagabearen eragina. Kontuan hartuko dugu beraz:

Alde batetik, galdetegian agertuko zaizkigun izenak bizidunak ala bizigabeak diren, *ume* eta *etxe* esate baterako. Horietan mugagabea erabiltzeko era aztertuko dugu.

Bestetik, eta §2.3.3.1 atalean azaldu dugun bezala, izenak bokalez ala kontsonantez *herri* ala *gezur* amaitzeak, deklinatzeko era ere moldatuko du. Horrexegatik, ikasleak bi kasu horien aurrean nola moldatzen diren, zailtasunik ote

duten aztertuko dugu. Izan ere, kasu bakoitzeko adibide bana ipiniko dugu galdetegian, bien erabileran ezberdintasunik ote dagoen aztertuko baitugu.

a itsasia duten izenak ere hartuko dira kontutan, deklinatzeko momentuan eta mugagabea erabiltzeko unean, *a* ez baitute galtzen. Adibidez, *bost anaia dira denetara*.

Azkenik, mugagabeak aditzaren erabileran zer nolako ondorioak dituen aztertuko dugu. Izan ere, zenbait kasutan singularra ala plurala erabil daiteke, baina bestetan ez. Beraz, bata ala bestea noiz erabiliko duten jabetuko gara.

Aurrez aurre izango ditugu ikasleak. Horrek, inkesta egin bitartean, eta emaitza linguistikoei erreparatzeaz aparte, beste adierazle batzuei kasu egiteko aukera emango digu, besteak beste ikaslearen keinuak, harridurak, erantzuteko erak, ikasleen pertsonalitatea...

4. EMAITZAK ETA HORIEN EZTABAIDA

Lehendik aipatu bezala, galdetegi bat pasa dugu ziklo bakoitzeko ikasle batzuei. Horren bitartez, ziklo bakoitzean, mugagabearen erabilera nolakoa den aztertu dugu, eta emaitzekin gure hipotesia baieztatzeko edota ezeztatzeko aukera izango dugu. Hau da, egiaztatuko dugu egia ote den ziklo batetik bestera ikasleek gero eta hobeto erabiltzen dutela mugagabea. Hots, gero eta Lehen hezkuntzako ziklo altuagoan egon, orduan eta mugagabearen erabilera hobea izango delaren hipotesia.

Ikasleek emandako erantzunetatik, mugagabearen erabilerari buruzko datuak aztertuko ditugu. Galdetegian ergatibo, absolutibo, adlatibo, inesibo, destinatibo eta soziatibo deklinabide kasuen erabilerari buruzko emaitzak jaso ditugu.

Emaitzak aztertzeko unean, aldagai hauei jarri beharko diegu arreta bereziki: alde batetik, deklinatuko den izena biziduna ala bizigabea den eta bestetik, kontsonantez ala bokalez amaitzen den. Hala ere, emaitzak azaltzen goazen heinean konturatuko gara beste aldagai batzuk ere azpimarratuko ditugula mugagabearen erabileraren eragile gisa, besteak beste, -a itsasia...

Emaitzek ziklo bakoitzeko ikasleek mugagabearen zein estrukturak dituzten finkatuen zehazten lagunduko digute, hots, zein deklinabide kasu erabiltzen duten hobekien, eta zeinekin dituzten arazo gehien.

Aldagaietatik aparte, bestelako ezaugarri batzuk ere aztertu ditugu. Gogoratu dezagun, inkesta banan-banan eta inkestatuarekin parez pare geundela. Erantzuna eman bitartean, beren jarrerek, hitzegiteko erak... ere izango ditugu aztergai.

Goazen ba, mugagabearen erabilerari buruzko emaitzak aztertzeraz. Atal ezberdinetan sailkatuko ditugu emaitzak:

4.1. Emaitza orokorrak

Lehenengo zikloari dagozkion datuak esanguratsuak dira oso, euskararen erabilerari begira. Izan ere, L1 hizkuntza, gaztelera, garatua dute oso. Hori da familian, kalean... txikitatik erabilitakoa. Baina euskararen ikaskuntzaren prozesua, bereziki,

euskararen deklinabideko numero mugagabea

LHko etapa honetan hasten da, eta zailtasunak erakutsi dituzte euskaraz esaldiak, kontzeptuak... adierazteko unean. Mugagabea erabiltzeko unean ere, zailtasun horiek antzeman dira, ez baitute numero gramatikal honen behar bezalako erabilpena egiteko ohiturarik.

Ondorioz, ikasleak bi motatako zailtasunekin topatu dira: batetik, erderazko esaldiak ulertzeko unean, horietako asko aditz bat baino gehiagoz osatuak baitira (*Akuarioan ditudan bost arrainek, janari guztia jan dute*); bestetik, euskarazko itzulpena egiterakoan, izenen itzulpen zehatza egiteko unean (*anaia – hermano; izarrak – estrellas; lapur – ladrón...*).

Bigarren zikloan emaitzak nabarmenki hobeak izan dira. Bilakaera positibo hori kasu hauetan nabaritu da: destinatiboan, ergatiboan eta adlatiboan (kontsonantez amaitutako kasuan bereziki).

Hirugarren zikloan aldaketak ez dira horrenbeste nabaritu. Esan daiteke, bigarren zikloko ikasleek mugagabearen inguruan duten ezagutzarekin konparatuz ezberdintasun gutxi agertzen dutela. Izan ere, ergatiboaren erabileran akatsak nabarmenak izan dira, denbora gehiago behar izan dutelarik itzulpena egiteko. Zailtasunak izan dituzte ere adlatiboaren erabileran, bokalez amaitzen diren kasuetan, bereziki. Hala ere, informazio prozesamenduan askoz ere gaitasun handiagoak erakutsi dituzte.

Esan daiteke beraz, mugagabearen hobekuntza lehenengo ziklotik bigarrenerako urrats horretan gertatzen dela, gure datuen arabera.

Orokorrean, deklinabide kasuen erabilera hobera joan den arren, badaude Lehen Hezkuntzako ikasleek barneraturik ez dituzten hainbat deklinazio arau, bereziki bokalez amaitzen diren hitzen deklinazioa egiterako unean. Kontsonantez amaitzen diren hitzekin gertatzen ez den bezala, pluraleko marka bera erabiltzen baitute, bokalez amaitzen diren hitzek, atziki propioa behar dute soziatiboan (*-rekin*), adlatiboan (*-tara*) eta inesiboan (*-tan*). Galdetegian hiru kasu horiek hartuz gero, (bokalez amaituriko hitzetan) datu hauek jaso ditugu:

19. taula: bokalez amaituriko kasuen emaitzak

soziatiboa	inesiboa	adlatiboa
30 ikasletatik 16k gaizki	30 ikasletatik 26k gaizki	30 ikasletatik 25ek gaizki

Bigarren eta hirugarren zikloetan bereziki, emaitzak nahiko pareko mantendu dira, aldaketa esanguratsurik gabe. Horren adibideak dira ergatiboaren *-k*, *-ek*, kasu dextentetan ahaztu dituztela; edota Ikasleek arazo asko erakusten dituzte bereziki, esparru gramatikaleko kasuetan, *-k* partikula eskatzen duten kasu horietan alegia.

4.2. Deklinabide kasuei dagozkien akatsak:


Gogoratu dezagun, 2.2.1. puntuan agertu bezala, deklinazio kasuak hiru taldetan banatzen dira.

4.2.1. Kasu gramatikalak

- *Ergatiboa eta absolutiboaren erabilera*

Ezer azaltzen hasi aurretik, hurrengo orrialdeko grafikoari jarriko diogu arreta:

1. grafikoa: ergatiboa eta absolutiboaren arteko ezberdintasunak



Grafikoan azter daiteke, zer nolako emaitzak jaso diren zikloz ziklo ergatibo eta absolutiboaren erabileran. Hau da, kasu bakoitza ikasleen zein ehunekok erabili duen ondo agertzen du. Ondoren adieraziko dudan absolutiboaren erabileran eragin negatiboa izan duen aspektu bat alde batera utzita, ikusten al da zer nolako aldea dagoen absolutiboa eta ergatiboaren erabilera zuzenen artean. Aztertu daitekeen bezala, absolutiboaren emaitzak maila handienetan mantentzen diren bezala, ergatiboaren emaitzak baxu mantentzen dira.

Ergatiboari dagokionez, lehenengo zikloan ikasleen %100ek gaizki erabili du. Ergatiboa gaur egun pilpilean dagoen kasu marka da, gero eta gutxiago erabiltzen baitute euskaldunek. Ikasleek L2 aren ikaste prozesuan oraindik barneraturik ez duten araua da, horren erabilera alde batera utzi baitute, eta proposaturiko kasu guztietan absolutiboa erabili dute.

Ikastolako berrogeita hamar irakasle egin du greba erantzun dute ikasle guztiek. Ergatiboak mugagabea –k behar du hala beharrez. Ikastolako berrogeita hamar irakaslek egin du greba izango litzateke erabilera zuzena, baina esan daiteke ergatiboa absolutiboan bilakatu ohi dela kasu askotan.

Horretan eragina garbia dauka gaztelaniak. Gaztelaniak ez du ergatiborik eta pluraleko marka adierazteko artikulua bat erabili ohi da, normalean *los, las*. Ondoren, izena ipintzen da, singular ala pluralean *los barcos, las casas* baina izenak ez du atzizkirik erabiltzen. Beraz, euskarara itzulpena egiterakoan izena (gure kasuan irakasle) modu berean uzten da, deklinatu gabe.

Horregatik, ergatiboaren erabilerarekin zerikusia handia dauka absolutiboak ere. Ikus dezagun hurrengo datua: Hamar ikasletik zortzik ondo erabili dute absolutiboa. Absolutiboak ez du markarik behar mugagabeen, eta ondorioz errazagoa da zuzen erabiltzen.

Hala ere, ez dugu haren erabilera nahasi behar. Izan ere, ikasle askok askotan, esaldi bat osatu behar dutenean deklinazio marka zuzena zein den ez dakitenean, deklinatu beharreko hitza deklinazio atzizkirik gabe uzten dute.

(46) Adibidea:

a) *3 euskaltegi izena eman dut.*

b) *Zenbat jolas dakizu jolasten?*

Adibideetan *euskaltegi* edo *jolas* hitzen deklinazio zuzena zein den ez dakienez, izen arrunta inolako atzizkirik gabe utziko du. Kasu horietan ezin da absolutiboa erabili.

Gauza bera gertatzen da galderen erantzunetan, gero eta garbiago antzematen baita absolutiboaren hazkunde nabaria.

(47) Adibidea:

Nongoak dira zure langunak?

Iruñea.

Gero eta garatuago dagoen erantzuna da honakoa. Absolutiboak indarra hartzen duen bitartean, tamalez, euskararen erabilera zuzenek kalte handiak jasaten ditu. Horrek erakusten du euskararen gramatikari begira, deklinazio marken erabileran zailtasunak dituztela.


Hala ere, eta bigarren zikloan zentratuta, ergatiboaren erabilera hobera dihoala aztertu dugu eta lehenengo zikloko datu txar horiek ikaragarri hobetu dira zortzi urteko haurretan.

Ergatiboaren erabilera zuzenak sekulako hobekuntza jasan du beraz, bigarren zikloan, baina hirugarrenean berriz ere, okerrera egiten baitu. Ikasleen %70ek baino gehiagok erabili baitu *gaizki bost arrainak jan dute... bost arrain jan dute...* erantzun dutelarik.

Mugagabea eskatzen duten kasuetan, *-k* erabiliko da bokalez amaituriko hitza balitz, eta *-ek*, kontsonantez amaitzen den hitza denean. Hau adierazi dugula, zera ondorioztatu dugu: mugagabea gaizki erabili dutenetatik, akatsen 3/4 baino gehiago kontsonantez amaituriko hitzetan *arrain, lapur...* ergatiboaren singular marka erabili izategatik izan dela. Hau da, *arrainak, lapurrak...* erabili dute *arrainek, lapurrek* erabili beharrean.

Beheko grafikoan ikus daitekeen moduan, ergatiboaren erabilerak gorabehera handiak ditu Lehen Hezkuntzako etapan.

2. grafikoa: ergatiboaren erabilera zikloz ziklo



Absolutiboaren erabilerari dagokionez, ulertu egiten dute ikasleek *lapur asko sartu dira...* erabili dutelako inkestatu guztiek. Beraz, badakite berez, absolutiboak mugagabeen markarik gabekoa izan behar duela. Baina zer gertatzen da *-a* itsasia daramaten hitzekin? *Lau anaia horiek Iruñekoak dira.*

Hiru zikloetan, ikasleek oker erabili dute, %95ak *-a* ahaztu baitu. Izan ere, *anaia* hitzak *-a* itsasia behar du izan eta deklinatzerako unean ez du galtzen, berezkoa duen zatia baita. Ilari Zubirik bere liburua (Gramática didáctica del euskera, Ikasbook) goraipatzen du ere absolutiboaren erabileran akats nabarienteko bat honakoa dela.

Hala ere, askotan ez ditugu *-a* itsasia daramaten hitzak kontuan izaten, eta beraz, gaizki deklinatu ohi dira. Hona hemen, zalantzak sortarazi ditzaketen hitz ohikoen zerrenda bat:

4.2.2. Leku-denborazko kasuak

- *Adlatiboa*

Atal honen sarreran aipatu dugu izen bat kontsonantez ala bokalez amaitzen den aztertzea hartu behar dela kontutan. Bigarren zikloan datu interesgarri bat jaso dugu.

Izan ere, adlatibo kasua beharrezkoa duten bi esaldi euskaratu dituzte ikasleek. Esaldi batetan (hamar ikasletik hiruk soilik egin dute ondo) izena bokalez amaitzen zen (*herri*) eta bestean aldiz, kontsonantez (*jolas*). Kasu honetan, zazpi ikaslek egin dute deklinazio forma egoki.

Bi izen horiek kasu berari egiten diote erreferentzia, baina atzizki ezberdina behar dute. Sakonki aztertzen baditugu konturatuko gara:

Adlatibo kasuak *nora* galderari erantzuten diolarik..

- *herri* izena bokalez amaitzen da eta beraz, *-tara* atzizkia gehitu behar zaio.

Horrela bada, *herritara* izango da emaitza.

- *jolas* izenak aldiz, amaieran kontsonante bat du, beraz, *-etara* atzizkia eskatzen du hitzaren amaieran. Beraz, *jolasetara* izango litzateke deklinazio egokia.

Hori aztertu ondoren, aipatu daiteke hitza kontsonantez amaitzen bada, eta soilik kontsonantez amaitutako kasuetan, pluralaren erabilera bera eskatzen duela – *etara* partikula hain zuzen ere. Adibidez:

(48) a) *Bost zuhaitzetara igo dira sagarrak hartzeko* = mugagabea.

b) *Oihaneko zuhaitzetara igo nahiko nuke hostoak hartzeko.* = plurala

Ezin da arau bera jarraitu bokalez amaitutako kasuetan, eta beraz, gaizki legoke *bost herrietara*, edota *hainbat herrietara* deklinazioa.

Lehenengo zikloan aldiz, oraintxe aipatutako arauaren erabileran arazoa izateaz gainera, beste arazo bat agertu dute. Hots, adlatiboa ablatibo bizigabeekin edota datiboarekin nahastu dute.

Adlatiboaren atzizkiak mugagabeen *-tara* edota *-(e)tara* eskatzen du, *nora* galderari erantzuten dion deklinazioa alegia. Baina ikasleen %40ak ablatiboa erabili du eta *hainbat herritara* erabili beharrean *hainbat herritik*, *hainbat herrietatik* erabili du. Aldiz, ikasleen %30ak inesiboa erabili du, *hainbat herrietan* esanez. Betiere, mugagabea erabili gabe.

Ondorioz, eta erabiltzen dugun kasua zein den kontuan hartu gabe, ateratzen dugun ondorioa honakoa da: esaldi bat esateko era ondo egon daiteke kasu ezberdinak erabilia ere. Baina mugagabearen erabilera ez dute behar bezala egiten. Hau da, adlatiboaren ordeztu, ablatiboa erabiltzea ez da larria, esaldiek zentzua galtzen ez badute behintzat: *korrika hainbat herritatik pasa zen*. Edota *Korrika hainbat herritara joan zen*. Bi esaldi posible horiek esanahi bera dute. Baina mugagabearen erabileran datoz zalantzak. Izan ere, ablatiboan plurala erabili dute *hainbat herrietatik* mugagabe atzizkia erabili ordeztu, eta inesiboan *hainbat herrietan*, *herritan* erabili beharrean.

Horrek baieztatzen du gure hasierako hipotesia, eta baieztatuko dugu lehenengo zikloan behintzat, mugagabearen erabilera ez dela behar bezala egiten, askotan beste numero gramatikal bat erabiltzen dutelako, eta beste zenbaitetan *hainbat, zenbait...* bezalako zenbatzaile zehaztugabeekin mugagabea erabili behar dela ez dakitelako.

- *inesiboa*

Adlatiboan eta soziatiboan aipatu bezala, kasu honetan ere zailtasunak agertu dituzte ikasleek.

Hala ere, badago aipatzea merezi duen zerbait. Izan ere, hurrengo taulak agertzen du inesiboaren erabilera nolakoa izan da zikloz ziklo, baina bokalez amaituriko hitza deklinatu behar zutenean. Amaiera horrek *-tan* atzikia behar du indarrean.

20. taula: inesiboaren erabilera bokalez amaituriko hitzetan

1. zikloan		2. zikloan		3. zikloan	
ondo	gaizki	ondo	gaizki	ondo	gaizki
0	10	3	7	1	9

Ikustes daiteke zeinen gutxi menperatzen dituzten inesiboaren arauak bokalez amaituriko hitz bat deklinatu behar denean. Bokalez amaituriko hitzetan erabiliko dugun atzikia *-tan* izango da, eta ezin da pluraleko *-etan* atzikiarekin nahasi: *etxetan, piznatan, ikastolatan...*

Kontsonantez amaitzen diren hitzetan aldiz, plural mugatuan erabiliko dugun egitura bera erabiliko dugu: *komunETAN, jolasETAN, arrainETAN...* Horren erabilera askoz ere hobea izan da zikloz ziklo, hurrengo taulan agertzen den moduan:

21. taula: inesiboaren erabilera kontsonantez amaitzen diren hitzetan

1. zikloan		2. zikloan		3. zikloan	
ondo	gaizki	ondo	gaizki	ondo	gaizki
10	0	7	3	10	0

Ondoriozta dezakegu beraz, zeinen kontrajarriak diren emaitzak kasu baten barnean.

4.2.3. Elkartasunezko kasuak

- *Destinatiboa.*

Destinatibo kasuaren erabilera zuzena izan da orokorrean. Destinatibo kasuek eskatzen duten araua ikasleek dexente kontrolatzen dutela ziurtatu diezaguke galdetegiak.

Hiru zikloetako ikasleen ehuneko %40k zuzen erabili du, eta bereziki, bigarren zikloan ikasle guztiek zuzen erabili dute.

Esan daiteke *-(e)ntzat* atzizkiarekin arazo nabarmenenak zazpi urteko haurrek izan dituztela. Hauen akatsa beste deklinazio kasu batekin nahasi izatearen ondorioz iritsi da, datiboarekin hain zuzen ere.

Bizkotxo bat egin dut hiru lagunENTZAT esaldiak lantzen zuen destinatiboaren kasua. Hala ere, datiboaren nahasketa ikusteko aukera izan dugu: *bizkotxo bat egin diet hiru lagunei*. Zergatik erabili datiboa kasu honetan? Horietako eragile bat erderaren, L1aren eragina da. Izan ere, *he hecho un bizkotxo a tres amigos* esalditik itzulpenaren islada dagoelaren seinale.

Horrek erakusten digu beraz, sarrerako atalean, mugagabearen erabileran eragina zuten faktore batzuk bete egiten direla. Hau da, L1aren eragina nabaria da destinatiboaren adibide hau egiterako unean. Euskarazko arauak errespetatuz, gaizki erabilita ez dagoen arren, kasu honek norentzako galderari erantzunez, destinatiboa behar du.

Bigarren eta hirugarren zikloetan garrantzizko arazorik sortu ez duen kasua izan da. Hirugarren zikloan aldiz, nabarmentzeko aukera izan dugu *-tzako* atzizkiaren erabilera nahiko garatua dagoela, destinatiboaren antzekoa den forma den arren. *Bizkotxo bat egin dut hiru lagunentzako*. Gelan atzizki hau erabiltzeko ohitura, edota irakasleak hitzegiteko unean erabiltzen duen atzizkia izatea... izan daitezke partikula hau erabiltzeko zergaitiak. Izan ere, gizatalde sozial batek garatuak dituen hitzegiteko

arauek modu zuzenean eragiten dute hizkuntza erabiltzeko unean, eta beraz, deklinatzeko unean ere.

- *soziatiboa:*

Soziatiboa erabili behar den kasuetan ezberdintasun bat egitea beharrezkoa da:


Batetik, kontsonantez amaitzen den hitza deklinatzerako unean ikasleen %100ak ondo erabili du *-ekin* atzizkia. Pluraleko atzizki bera da eta arrazoi horregatik, ikasleek erraztasun handiagoz erabil dezakete.

Bestetik, deklinatu beharrekoa hitza bokalez amaitzen diren kasuetan datoz arazoak. Izan ere, bokalez amaitzen den hitzaren eta *-ekin* partikularen artean *r* letra gehitu behar zaio, mugagabearen forma har dezan. Hona hemen adibidea:

Hainbeste argiREKIN ezin dira izarrak ikusi. Mugagabeak ez du **hainbeste argiekin ezin dira izarrak ikusi* forma onartzen.

Kasu honetan (bokalez amaitzen den hitza deklinatzerako unean) akatsa egin dutenetatik, ikasleen $\frac{3}{4}$ singularra erabili du. *Hainbeste argiAREKIN ezin dira izarrak ikusi.* Ikasleek bi bokalen artean (*argi_ekin*) zerbait falta delaren susmoa dutela erakusten dute eta horren faltan *-a-* ipintzea erabakitzen dute. *-arekin* atzizkiak singularra markatzen digu eta mugagabea behar du izan *hainbeste* zenbatzaile zehaztugabeak behartzen baigaitu.

3. grafikoa: deklinazio multzoen erabileraren emaitzak



Lehenengo zikloan ikasleen %62ak kasu gramatikal eta elkartasunezko kasuak gaizki erabili ditu eta ikasleen %75ak leku-denborazko kasuekin arazoak izan ditu.

Bigarren zikloan, inkesta pasa zaien ikasleen erdiak kasu gramatikalak oker erabili ditu; %42ak leku-denborazko kasuetan akatsak egin du eta elkartasunezko kasuei dagokionez, %32ak gaizki erabili du.

Azkenik, hirugarren zikloari dagozkion datuak honakoak dira: Kasu gramatikaletan, ikasleen %65ak gaizki erabili dute ergatibo eta absolutiboa; %47ak oker erabili dute leku-denborazko kasuak eta %45ak elkartasunezko kasuetan akatsen bat burutu dute. Horren ondorioz, esan dezakegu, akatsak lehenengo zikloarekin konparatuz gutxitu diren arren, oraindik ikasleen ehuneko handi batek zalantzak agertzen dituela mugagabearen erabileran. Hala ere, bigarren zikloarekin batera, mugagabearen erabileran gaitasunak handitzen direla ziurtatu daiteke, behinik behin, leku-denborazko eta elkartasunezko kasuetan.

4.3. Aditzaren erabilera

Marko teorikoaren atalean aipatu bezala, perpaus bateko aditzarekin komunztatzen duen izen-sintagma mugagabearen dagoenean, aditza singularrean edo

pluralean jokatuz zalantzak sortzen dira. Puntu horri buruz ez dago arau zehatz eta bakarra. Beraz, badirudi kasu horietan aditza nahiz pluralean nahiz singularrean joka daitekeela (Ikasbil- http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/hizkuntza-arauak-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_Oz2o&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=444161)

(49) a) *Ikastolako berrogeita hamar irakaslek egin du/dute greba*

b) *Hainbeste argirekin, ezin da/dira izarrak ikusi.*

Inkestan ere horrelako adibideak agertu dira. Kasu horietan ikasleen joera aditza pluralean ipintzea izan da. Horren arrazoia izen sintagma objektu edota pertsona askori erreferentzia egiteagatik izan daiteke. Hau da, aurreko adibideetan, greba egindako irakasleak asko dira, beraz, aditza pluralean jartzeko ohitura dute ikasleek. Bigarren adibidean, inguruan dagoen argi kantitatea handia denez, aditza pluralean ipini dute.

CONCLUSIONES

Revisando los resultados obtenidos del apartado anterior, la primera conclusión que se puede sacar de nuestro análisis es el siguiente: En Educación de Primaria, los alumnos van desarrollando adecuadamente la competencia del indefinido, a pesar de que haya varios casos que su declinación cause duda. A medida de que los estudiantes van aprobando los cursos, se observa que hacen un mejor uso del indefinido.

Teniendo en cuenta que el uso que se hace de este número gramatical en el primer ciclo es notablemente bajo, se debe recalcar que en el segundo ciclo aumenta el buen uso. Y en el tercero, ese incremento se reduce y se mantienen los mismos niveles del segundo ciclo.

Haciendo un análisis más concreto sobre el uso que se hace de los casos de declinación, las principales conclusiones del estudio realizado son dos: Por un lado, el ergativo es uno de los casos más complicados, ya que la partícula *-k* tiende a olvidarse.

Por otro, está extendido el fallo de usar el sufijo del plural en vez del indefinido en los casos en los que la palabra que hay que declinar acaba en vocal. Especialmente, eso ocurre con el sociativo, inesivo o adlativo.

Un gran porcentaje de los errores cometidos se refieren a dicho problema. En estos casos, habría que trabajar más las terminaciones propias del indefinido, ya que se abusa y no es correcto hacer uso de los sufijos del plural.

En los siguientes ejemplos se puede apreciar dicho error, en los que los alumnos han usado los sufijos del plural, en lugar de la forma del indefinido:

(50) a) *Jon bost euskaltegiEtan eman du izena. (la "e" en mayúscula no es correcta)*

b) *Korrika bost herriEtara joan zen (la "e" en mayúscula no es correcta)*

Se puede observar pues, que tanto en los casos gramaticales como en los de espacio y tiempo o en los restantes se cometen errores, y por tanto, queda en

evidencia en aspectos generales la gran cantidad de fallos que se cometen en torno al indefinido.

Otro error que se produce a la hora de declinar los sintagmas se debe a que no se declinan las palabras. Las palabras sin declinación le quitan el sentido a las oraciones. Algunos casos que hemos observado son los siguientes:

(51) a) *zenbat jolas dakizu jolasten?*

b) *korrika 500 herri izan zen*

Horrenbeste argia ezin dira izarrak ikusi.

Finalmente, se debe prestar atención a la influencia que tiene la L1 a la hora de usar el indefinido. En muchas ocasiones, los estudiantes piensan de qué modo una frase se dice en castellano, en su lengua materna, y posteriormente, la traducen a euskera, usando la mejor traducción posible. En estos casos, a pesar de que hay veces en las que la palabra se declina correctamente, (también encontramos errores de declinación) el orden en el que se debe ordenar los sintagmas no es correcto.

En las encuestas realizadas se puede apreciar dicha traducción en los siguientes ejemplos:

(52) a) *bost arrain ditudanak akuarioan jan dute janari guztia.*

b) *egin dut bizkotxo bat hiru lagunei.*

c) *Berrogeita hamar irakasle ikastolakoak egin dute greba.*

En este último caso, la palabra *irakasle* se debe declinar con el número indefinido, ya que anteriormente tiene un cuantificador definido. Pero como la frase se crea siguiendo un orden que no es correcto, eso lleva a que no se decline correctamente. Es una traducción del castellano *cincuenta profesores de la Ikastola* tik y por tanto, el uso del indefinido se hace incorrectamente.

Veamos el siguiente caso también:

La traducción que un estudiante ha hecho de la frase *Tengo una relación perfecta con dos amigos del pueblo* es la siguiente: *eramaten naiz oso ondo bi lagun herrikoak*. La frase pide ser escrita con el caso del sociativo, *herriko bi lagunEKIN harreman ona daukat*. A pesar de ello, observamos que la razón de no haber utilizado la marca *-ekin* se debe a la influencia del castellano, ya que en euskera esa frase no está estructuralmente ordenada correctamente. Por lo tanto, el uso del indefinido también se hará incorrectamente.

Como conclusión podemos mencionar lo pesimistas que son los resultados en cuanto al uso del indefinido, aunque se van reduciendo los errores en cuanto van pasando de curso. A consecuencia de ello, la escuela tiene un gran trabajo para los siguientes años en el cual tiene que centrar una parte de sus esfuerzos en mejorar las competencias en el ámbito de la gramática vasca y especialmente, lo que respecta al número indefinido.

Nuestra investigación ha estudiado el uso del indefinido, pero se ha realizado centrándose en la edad. Es decir, queríamos investigar la relación que había entre la edad de los estudiantes y el modo de usar el indefinido. Pensábamos que a medida que los estudiantes iban escolarizándose en un curso superior, también harían un mejor uso del indefinido. Los datos nos han confirmado eso, pero los estudiantes todavía continúan realizando muchos errores. Y es más, la evolución en cuanto al uso del indefinido no ha sido tan positiva como lo esperado.

En las siguientes investigaciones acerca del indefinido, en vez de tomar como referencia la edad de los alumnos, podría ser interesante centrarse directamente en la metodología que se aplica en la escuela. A lo largo de este trabajo hemos apuntado varias razones por las que se puede hacer un uso inadecuado del indefinido, pero deberíamos de ir más allá, e investigar de qué forma se explica este número gramatical en el aula. De dicho estudio podrán salir datos interesantes, de los cuales podamos sacar conclusiones más claras del porqué del mal uso del indefinido.

Por lo tanto, para ponerle punto y final a nuestro proyecto podríamos recalcar que la hipótesis del principio se confirma y a pesar de que el mayor cambio en cuanto al buen uso del indefinido ocurre en el segundo ciclo, podríamos afirmar que los euskararen deklinabideko numero mugagabea

estudiantes a medida que van pasando de curso y van haciéndose mayores, también van realizando mejor uso del indefinido.

ERANSKINAK

ESALDIA	ZIKLOA						KASUA
	1		2		3		
	O	G	O	G	O	G	
1	4	6	10	0	7	3	DESTINATIBOA
2	8	2	9	1	8	2	ABSOLUTIBOA
3	0	10	2	8	1	9	
4	3	7	5	5	4	6	SOZIATIBOA – BOKALEZ
5	0	10	5	5	3	7	ERGATIBOA
6	0	10	3	7	1	9	INESIBOA – BOKALEZ
7							
8	8	2	10	0	10	0	SOZIATIBOA – KONTSONANTEZ
9	1	9	0	10	1	9	ABSOLUTIBOA
10	0	10	3	7	2	8	ADLATIBOA – BOKALEZ
11	7	3	10	0	10	0	INESIBOA – KONTSONANTEZ
12							
13	0	10	6	4	2	8	ERGATIBOA
14	3	7	7	3	8	2	ADLATIBOA - KONTSONANTEZ

ESALDIA	ERANTZUNA		KONTUAN HARTU
	ZUZEN	OKER	
1- Hiru lagunentzat egin dugu bizkotxoia <i>He hecho el bizcocho para tres amigos.</i>			Destinatiboa
2- Lapur asko sartu dituzte kartzelan azken egunetan. <i>Han metido a muchos ladrones en la cárcel los últimos días</i>			<u>absolutiboa</u>
3- Zure kolorerik gustokoena zein da? <i>¿Cuál es tu color favorito?</i>			-
4- Hainbeste argirekin ezin dira izarrak ikusi <i>Con tanta luz, no se pueden ver las estrellas</i>			<u>soziatiboa</u>
5- Ikastolako berrogeita hamar irakaslek egin dute greba. <i>Cincuenta profesores de Ikastola han hecho huelga.</i>			<u>ergatiboa</u>
6- Jon bost euskaltegitan eman du izena. <i>Jon se ha apuntado en cinco euskaltegis.</i>			<u>inesiboa</u>
7- Animaliarik al duzu etxean? <i>¿Tienes algún animal en casa?</i>			-
8- Herriko bi lagunekin harreman bikaina daukat. <i>Tengo una relación perfecta con dos amigos del pueblo</i>			<u>soziatiboa</u>
9- Lau anaia horiek Iruñekoak dira. <i>Esos cuatro hermanos son de Pamplona.</i>			<u>absolutiboa</u>

10- 500 herritara joan zen Korrika <i>La korrika fue a 500 pueblos</i>			<u>adlatiboa</u>
11- Ikastolako hiru komunetan arratoi txikiak agertu dira. <i>Han aparecido ratones pequeños en 3 baños de la Ikastola</i>			<u>inesiboa</u>
12- Zeintzuk dira h-arekin lotuta egiten dituzun akats gehienak? <i>Cuáles son las palabras que escribes más a menudo sin h?</i>			-
13- Akuarioan ditudan bost arrainek janari guztia jan dute <i>Los cinco peces que tengo en el acuario han comido toda la comida.</i>			<u>ergatiboa</u>
14- Zenbat jolasetara dakizu jolasten? <i>¿a cuántos juegos sabes jugar?</i>			<u>adlatiboa</u>

ERREFERENTZIAK

- A. Desconocido. *La investigacion cualitativa*
- A.Desconocido. *El contacto de las lenguas en España: bilingüismo y diglosia. Situación sociolingüística de Asturias.*
- Alberdi, A. (2008). *Oinarrizko gramatika* –. Elkar. Andoain
- Bernal, Josep M. *Diglosia y funciones sociales de las lenguas en Grecia 1830-1941.*
- Eusko Jaurlaritza. (2008). *Euskara eta euskalkiak* Graficas santamaria S.A. Donosita – Vitoria.
- Fernández, M. *Bilingüismo y diglosia*
- Fontaneda - *Deklinabidea*- www.fontaneda.net
- Galé, P. (2006). *Toponimia ikerketak*. Gazteiz
- Infoescuela *Memoria de investigación* -
- Irigoién, A. (1992). *Baten, batetan/batean, izen-syntagma mugagabeak*. Bilbo
- Lasa, Jauregi, P. (1980). *Mugagabea eta beste zenbait gauzatxo Juan Tartasen "ontsa hiltzeko bidean"*.
- Manterola, I & Almagren, M. *Las grandes líneas de progresión de los aprendizajes lingüísticos en la escolarización en euskera* - Euskal Herriko unibertsitatea.
- Mesonero, M. (2005). *Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak* -- Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo
- Muñoz Hernandez, C. (2005). *Usos de lengua materna (L1) y lengua meta (L2) en un contexto de inmersión real*. Indiana University
- Perez Serrabim G. (2002). *Investigación Cualitativa Retos e interrogantes. II Tecnicas y analisis de datos*. la Muralla S.A. Madrid
- Txillardegui. (1978). *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas. Donostia
- Villasante, L. (1972). *La declinación del vasco literario común*. Editorial Franciscana Aranzazu. Oñate
- Zuazo, K. (1988). *Euskara batua: aitzindariak eta beste*.
- Zubiri, I & Zubiri, E. (2000). *Euskal Gramatika Osoa* Didaktiker S.A. Bilbo
- Zubiri, I. (2012). *Gramática, didáctica del euskera*. Ikasbook. Bilbo
- Zytsar, J.V. *Euskal Deklinabidea*
euskararen deklinabideko numero mugagabea

